




Kultur jardueren udaberria

Andoainen eta Urnietan kultur ekitaldi sorta zabala martxan jarriko dute, datozen asteetan. Musika, antzerkia, bertsoa, zirkoa... aukera zabala da / 16



Zaldibar auzia
hizpide izango dute
Andoainen,
Ahoztar Zelaieta
kazetariaren eskutik / 2-3



IkusZirkus egitasmoa
berriro abian jarriko
dute Andoainen,
Bastero Kulturgunearen
eskutik / 14



Lankidetza, garapen bidean diren herriekin

Saharan, Kuban eta El Salvadorren proiektuak sustatuko ditu Urnietako Udalak / 8-9

**barnE**

Trasteleku eta gordelekuen alokairua Urnietan

TRASTELEKUAK	GORDELEKUAK
44€	97€
2 m ² / BEZa barne	5 m ² / BEZa barne

- ASKOTARIKO TAMAINA ETAAZALERAK
- BIDEKOZAINZA 24 ORDU
- SARBIDE ETENGABEA

605713127

Igarategi Industrialdea 70 URNIETA
Bulegoa: Muebles Iturbe
barn.eus



Ahoztar Zelaieta kazetaria eta idazlea. ARGIA / DANI BLANCO

Zaldibar auzia Andoainen aztergai

Ahoztar Zelaieta kazetariak Zaldibarko ezbeharrari buruz ikertu du eta *Zaldibar. Zona Cero* liburua argitaratu du. Azken hilabeteetan horrenbeste zeresan eduki duen gaiaren gainean idatzi du, iritzi publikoan eragin eta egia azaleratzeko

Mikel Arberas ANDOAIN

Ahoztar Zelaieta kazetari eta idazle bilbotarra da. Azken urteetan, zenbait liburu idatzi ditu, batez ere, politika eta ustelkeria gaien gainean. Ekainaren 3an Bastero Kulturgunean idatzi berri duen liburua aurkeztuko du, *Zaldibar. Zona Cero* izena duena. Bertan, Zaldibarko auziaren gainean egindako ikerketa oinarritzat hartuta iritzi publikoan

eragin nahi du, honek sortutako kalteak eta ustelkeria azaleratuz. **Jada hainbat liburu idatzi dituzu kasu askoren gainean, zergatik murgildu zara oraingoan Zaldibarko kasuan?**

Arrazoi ezberdinengatik murgildu naiz Zaldibarko kasuan. Batetik, Zaldibar ez da arrotza niretzat, mallabiarren semea bainaiz. Inguruko herriak eta gunek aspalditik ezagutzen

ditut. Beste alde batetik, bane-kien kazetariak ekarpenak egin-go zituztela auzi hura ikertzean, eta horrela gertatu da. Kazetari-egindako ekarpenak, administrazioak baino azkarrago argitaratu dira, maiz. Gauzak horrela, auziari buruz kazetari gisa nire ekarpena egin behar nuela pentsatu nuen. Beste kazetari batzuekin informazioa jaso eta partekatzen aritu naiz.

Zailtasunak eduki dituzu liburua idazteko prozesuan?

Ez da erraza izan, zeren eta Txalaparte argitaletxeak liburua nobelatzeko agindua eman zidan. Hortaz, lan handia eduki dut. Informazio asko zegoen gaiaren gainean, alde batetik oso teknikoak baita, eta, hori nobelatzeko kostatzen zait. Hala ere, gertakariari buruzko informazio mordera nuen, iturri asko nituen, eta horrek lana apur bat erraztu zidan. Iturriekin eta dokumentazio egokiarekin segurua egiten dut lana.

Hilabeteetan zer esan handia eman duen kasua da Zaldibarkoa. Zeure liburuak gizaratean kontzientzia pizteko balioko du?

Nire ustez gizaratean auziarekiko kontzientzia badago, eta ez Zaldibarren bakarrik; inguruan plataforma bat sortu da, non, eskualdeko hainbat herrietan ari den lanean, horien artean, Markinan eta Zallan. Izan ere, hildako langileak bi herri horietan bizi ziren. Nolabaiteko sinergia bat sortu da Zaldibar Argitu plataformarekin.

Arestian aipatu dut, kazetari-iritzi publikoari informazio ugari helarazi diotela, oinarri bat edukitzeko zabortegean gertatutakoaren gainean. Gehitu beharra dago, agente sozial batzuk kontzientzia mugiarazten egon direla; alderdi politikoak ere lan horretan aritu dira, ezberdinak eta ideologikoki kontrajarriak direnak. Mugimendu ekologistek ere zeresana eman dute. Zera esan nahi dut, ezbehar mediatikoak arlo eta talde askotan izan duela eragina.

Nire liburuak iritzi publikoari ekarpena egiten dio, hitz egin eta argudiatzerakoan irizpide gehiago izan ditzan.

Langileen familiarekin kontaktua mantendu duzu?

Ez dut publiko egingo eurekin kontaktua egon den ala ez. Gainera, beraien dolua errespetatu nahi izan dut memento oro. Gehitu nahi dut, beraiek jendaurreko hainbat adierazpen egin dituztela auziari buruz eta nik aitortza horiek liburuan bildu ditudala. Gainera, nobelaren protagonistak behin eta berriro adierazten du langilekiko eta euren familiarekiko enpatia.

Liburuak auzian jar dezake Jaur-laritzaren gestioa?

Liburuan EAJren gestioak Zaldibarko gertakarian zer ikusi

izan duen agertzen da eta, oro har, hondakinen kudeaketaren gainean zein politika jarraitu dituen. Idatzian Zaldibarko gertakari-az gain, azken urteetan EAJk, PSEk eta Eusko Jaurlaritzak hondakinen gaiaren gainean zein politika erabili dituzten aipatzen da. Hainbat datu mahaigaineratzen ditut: alde batetik, arau subsidiario batzuk aldatu ziren Zaldibarko Udalean, Zabortegearen proiektua egikaritzeko. Bertan, EAJko alkateak eta Udaletzeko arkitektoa izandakoak zerikusia handia dute gaiarekin. Beste alde batetik, EAJk, PSEk eta Eusko Jaurlaritzak ere, politika zehatzak eraman dituzte, zeinak, akordioak eta dekretuak egiten aritu ziren hondakinak kuadeatzen dituzten enpresa pribatuen alde. Are gehiago, industria arriskutsuak kontrolatu behar zituzten zerbitzu publiko horiek pribatizatu egin zituzten, eta enpresa pribatu batzuei eman zizkieten esleipenak. Enpresa hauetako kide asko politikan ibilitakoak dira; ate birakari-entzako bitartez sartu dira edo hauek sortu dituzte aipatutako enpresak.

Zaldibarko larrialdiaren kasuan, zerbitzu publiko bat egin da, kontratu batzuk burutu dira. Adjudikatzailen artean politikarientzako ate birakari oso erakargarriak dituzten enpresa asko daude. Liburuan egoera honi buruzko deskribapena egin dut.

Antzerako kasuak errepika daitezkeela uste duzu gestio kaskarrak direla eta?

Kontuan eduki Eusko Jaurlaritzak egindako sailkapenaren arabera, Zaldibarko zabortegea Euskadiko bigarren hoberena zela, beraz, pentsatu txarrenak zein egoeratan egongo diren. Egia da, Zaldibarko krisiak ezin-negon handia sortu du zabortegearen gainean. Eztabaidak ugariak izan dira. Euskaditik kanpo ere zabortegearen sortutako hondamendiaren inguruan kontzientzia piztu da. Esaterako, Huelva, Madril edo Valentziako elkarteek gune hauetako kontrolak zorro-

"EGIN DEZAKEDAN EKARPEN HANDIENA IKERTZEA, DATUAK BILTZEA ETA INFORMATZEA DA"

tzagoak izan behar dutela aitortu dute. Beldurra nabaria da. **Zer lortu nahi duzu Andoainen Baseteron ekainaren 3an egingo duzun liburuauren aurkezpenarekin?**

Liburua aurkeztearen helburua herritarrengana gerturatzea da. Liburu dendetan salduko dira eta argitaletxeek euren lana egingo dute. Nire ustez publikoarentzako erakargarriagoa da egilearekin kontaktua edukitzea, izan ere, aurkezpenetan galdera zuzenak egin diezazkoke liburua idatzi duenari. Beti bezala, herriz herri arituko naiz aurkezpenak egiten eta jendearekin zuzeneko kontaktua edukitzen.

Zein ondorio atera duzu liburua idatzi eta argitaratu ostean?

Idazterakoan planteamendu ezberdinak egin nituen, ez soilik Zaldibarko auziari lotuta, baita hondakinen kudeaketari buruz ere. Liburua argitaratu ondoren ohartu naiz kazetarion arteko elkarte bat beharrezkoa dela horrelako kasuak elkarlanean ikertzeko. Idatzian aipatu dut kazetariak eta hedabideak lan handia egin dutela iritzi publikoaren eta informazio jasotzeko eskubidearen alde. Esan bezala, beharrezkoa ikusten dut kazetarien elkarlana sustatzeko nolabaiteko talde edo elkarte bat. **Etorkizunari begira proiekturen bat daukazu buruan?**

Bai, kakots artean proiektu bat daukadala esan nezake. Buruari bueltak ematen ari naiz eta

nahiko informazio bildu dut egoitzen gaineen. Oraindik plan proposamen bilduma bat egin behar dut sindikatuei, langileei eta egoitzetan dauden pertsonen senitartekoei begira.

Zaldibarko kasuarekiko zein iritzi orokor duzu?

Askotan esan izan dut nire iritzia ekarpen eskasa dela. Egin dezakedan ekarpen handiena ikertzea, datuak biltzea eta informazio hori mahaigaineratzea da. Honela, herritarrek gaiari buruzko iritzi propioa eduki dezakete. Iritzi horretan ikusiko da lana ondo edo gaizki egin dudan.

Egia da ere, liburuan iritzi batzuk jasotzen ditudala; adibidez, hildako langileen senideek, alderdi politikoei eta zenbait elkartek adierazitakoa. Europar Batasuneko ordezkariak ere gaiaren gaineen adierazpenak egin dituzte. Horretaz gain, kultur arloko jendeak ere ekarpenak egin ditu, hala nola Bernardo Atxagak edota Izaro Andres abeslariak. Gauzak horrela, iritzi hauek nireak baino garrantzitsuagoak zirela iruditu zitzaizdan.

"ZALDIBARKO KRISIAK EZINEGON HANDIA SORTU DU ZABORTEGIAN GAINEAN"

POSTONTZIA

DIEGO BARRASA ANDOAIN

Zikinkeria Olagain auzoko 'irla'n

Benetan gogaitzen nauena, haserretzen nauena, naturaren aurkako tratatu txarrak dira. Pertsona batzuek ingurumenarekin erakusten duten mespretxua eta heziketarik eza. Eta are gehiago, orain, une honetan. Ondo pasatzeko elkartzen dira, kutsatzea saihesteko neurririk hartu gabe. Bestela, urte zail honetako une gogorretan gehien eman digun ingurunearen aurka egiten ari direlako. Inguru natural bat zikintzen, hondatzen eta kutsatzen ari dira, gure herrian beste askok bezala, arnasa hartzeko, lasaitasunerako, bakerako edo desahogorako uneak eman dizkigutenak. Garai honetan, natura besarkatu behar izan dugu. Entzun. Arnastu. Bizi.

Izorratu egiten nau, lehortu egiten nau, amorratu egiten nau. Denok gozatu dugu gure kuadrillekin, gure familiarekin, gure lankideekin eta asteburuetak jai, parranda eta mahai luzeetako bikoteekin. Baina ez dut ulertzen joatea gustatzen zaien leku bat bada, hori



Argazki-bilduma osoa ikusgai dago Aiurri.eus gunean. AIURRI

dirudi behintzat, zergatik ez diren gai gunea zegoen bezala uzteko. Bertara botila eta lata bete ugari eramateko gai izan badira, ez dut ulertzen zergatik ez diren gai edukiontzirik hurbilenera eramateko, hutsik egonda.

Ez aipatzearen, kristalezko botilak lurrian, ertzean edo ibaian lehertzea. Jende horri gogorarazi nahi nioke (irakurtzeko gai balira) jendea bainatzera, irakurtzera, hitz egitera joaten den lekua dela. Familiak eta lagunak bertan elkartzen dira, inguruaz gozatzeko. Eta jende asko

ibiltzen da oinutsik hor, haien artean, nire seme-alabak, nire seme-alaben lagunak, eta ni ere bai.

Animalia- eta landare-espezie askoren bizilekua izateaz gain, leku bikaina da guztiok gozatzeko. Denok. Baina hori gertatzeko, festarako gogoa baino zerbait gehiago behar da buruan. Hezkuntza eta elkartasuna.

Ez lirateke beharrezko izango ohartarazpena, bideozaintza, ezta lerro hauek ere. Gauzarik baliotsuenaz ari baikara: gure ingurune naturalaz. Zaindu dezagun.



**HEDABIDEekin
ERE BAI**



AIURRI, ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK



28 €

Harpidetza egiteko,
Aiurri.eus webgunean:
aiurri.eus/bazkidetu/



**AIURRIKO
HARPIDETZA
KANPAINA
BEREZIA**

Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitez harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

Apirila-abendua bitarteko eskaintza honen kostua 28 eurokoa baino ez da
INOIZ EZ DA BERANDU!
BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

*OHARRA: Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar. Kanpaina hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago



IRITZIA

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

Tirolina, Lizarkola pasealekua eta "Agenda 21 belaunaldia"

Unanibia zubia zeharkatzen duen tirolina martxan jartzeaz dira, hilabete honetan bertan. Azken asteotan, giza mugimendua antolatuta da egitasmo honen aurka agertzeko. Eguzkiko ki-deek interes handia piztu duen hitzaldia eskaini zuten Bastero Kulturgunean, duela bi aste. Eta egun gutxira elkarretaratzea deitu zuten Goikoplazan. Bihotz-begiekin lotzen dugun toki kut-tun horietakoa da Unanibia. Tirolinak ingurua maite duten batzuren emozioa, sentimendua ukitu du. Asaldura edo min batetik abiatu dira, eta Eguzki talde ekologistak hasierako sentimentalismo hori argudio sendoeekin jantzi du. Jokaldi ona izan da. Tirolina, egitekotan, beste toki batean egitea eskatzen ari dira.

Agintzea, bestalde, erabakiak hartzea da. Eta erabaki gehienak ez dira denon gustuko izaten. Agintarientzat herritarrek egitasmo baten aurka agertzea ez da erosoena izaten.

Giza mugimenduak, agintarientzat deserosoak izan arren, garrantzia handikoak dira euren ekimenarekin kontrol lana egin dezaketelako. Andoaingo Udalak iragarri dituen egun bakoitzeko bidaia-kopuruan harago joanez gero, jakin badaki aurrean zer topa dezakeen. Sentsiblea da gaia, andoaindar askorentzat kuttuna den toki batez ari baidakara.

Unanibiaren konkista lehenago hasi zen, urez eta lurrez



Tirolinaren aurkako pintaketa, Lizarkolako kanalean. AIURRI

okupatu genuenean. Airez zeharkatzeko egitasmoa aurkeztu denean hainbat herritar asal-datu dira. Distantzia hartu dut hasieratik, eta Change.org sinadura kanpaina horretan ize-na eman ez duen horietakoa naiz. Eta arrazoiak, laburbilduz, bi dira. Oso zaila zait sinadura ematea, Hendaia aldeko baso baten kontura negoziarioa egiten duen Wow Park tirolina parkeko edo Larraitx aldeko tirolinaren erabiltzaile naizen aldetik. Kontraesankorra iruditzen zait Andoaingo tirolinaren aurka sinatzea Kataluniako edo Espainiako jarduera aktiboak ezagutzeko informazio gune-tara jotzen dudanean. Hemendik

kanpo beste turista bat gehiago naiz.

Unanibiaren konkista lehenago hasi zen, eta tirolinarik gabe ere biotopo babestuak hamaika arazo ditu. Arazoak biderkatu ziren Lizarkola pasealekua mar-txan jarri zenean. Iazko azaroan hamar urte bete ziren irekiera ekitaldia egin zutenetik. Ados-tasun zabala antzematen dut Lizarkolaren inguruan. Onarpen eta erabilpen handia, andoain-darren artean. Baita tirolinaren aurka Lizarkolan barrena pin-taketak egiten dituztenen artean ere. Eta gauzak zer diren: Li-zarkola pasealekukoa izan da azken urteetan inguru hark pairatu duen okupaziorik bor-

titzena. Geroztik biderkatu egin da Unanibira oinez, bizikletan edo lasterka zeharkatzen duen herrikideen kopurua. Garai ba-tean jende asko hurbiltzen zen Otietara oinez, Trentxikitik barrena. Eta Txapelaraino egiten zuten aurrera. Joan-etorria bide beretik egitera ohituta zeuden, oinezko eta korrikalari gehienak. Lizarkolako pasealekuaren erai-kuntzak aukerak biderkatu egin ditu, eta batez ere gizakiarena ez zen eremu bat konkistatu da. Lizarkola duela hamar urtera arte ubide bat zelako. Egun, dozenaka herritarren joan-eto-rrirako ibilbide ederra da. Na-turaren ikuspegitik, distortsioa areagotu duen ekimena izan da.

Erregulazio handirik gabekoa, dena esatera. Udan zarata ozen entzun daiteke Lizarkola pasea-lekutik, ibaiaren ertzean belarria jarrita. Gizakiok guretzat hartu dugun eremua da Unanibia, eta Lizarkola martxan jarri zenetik joera hori areagotu egin da.

Tirolina arazoaren muinean jarri dugu, eta arazo gehiago ditu gure haran maiteak. Tirolinak beste kokapen bat behar luke, eta bitartean oso jarrera etsigarriak ikustera ohitu gara. Gogoan dut Aste Santuko egu-nen atarian, martxoaren 30ean eta 31n, ordu aldaketarekin luzatzen hasi ziren arratsalde horietan Olazar eta Otietara par-kean biltzen den jendetza. In-guruak eta naturak eskaintzen digunaz gozatzen ari ginen. Baina parke horietan zein zen biharamuneko argazkia? Plas-tikoa, kristala eta errefusa uga-ri belazeen botata. Nire begie-kin ikusi nuelako, inguruaz gozatzen zeuden asko eta asko gaztetxoak ziren. Gozatu bai, baina handik etxera joandakoan jokabide oso zatarra erakusten ari ziren. Zenbat urte zituzten? 14? 16? 20? Inguruarekiko erres-petu falta hori ikustean, "Agen-da 21 belaunaldia" horrela jokatzeko duela ikustean, fraka-so kolektibo baten aurrean gaudela pentsatzen dut.

Unanibia eta Leitzaran bai-larak arazo handiak ditu. Bene-tako desafioa beste bat da. Fra-kaso kolektibo horri buelta ematen hasi beharko genuke.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Umietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Umietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikiak:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROITZ**

ALIATUAK: **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

Umietako Udala


DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berlitasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: **Bikain**

BABESLEAK:


Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



IREKIA, 21.05.18

Intzidentzia-tasa metatua

Kasu positiboen beherakada etengabeak eragina du 7 eguneko eta 14 eguneko intzidentzia-tasatan. Grafikoari begira, Gipuzkoa Bizkaiko datura iristen ari da. Atzera begira jarrita, Gipuzkoaren datua oso kezagarria zen. Azken hiru asteetan beherakada nabarmena eman da, eta helburua argia da: Are gehiago jaisten joatea.



IREKIA, 21.05.18

Ospitaleratzeak

Osakidetzako okupazioa nabarmen jaisten ari da. Egunez eguneko ospitaleratzeak arinduz doaz, eta hori seinale on bat da. Epe erdira, bereziki. Gaur gaurkoz zainketa berezien unitatean dagoen jende kopurua handia baita: Asteazkenean 131 lagun zeuden UCI-ZIUtan. Bi aste atzera eginez gero, 185 zeuden zainketa berezien unitatean.

Astez asteko intzidentzia

ANDOAIN

- **Maiatzak 12-18:**
3 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 120,10.
- **Maiatzak 5-11:**
15 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 246,86.
- **Apirilak 28-Maiatzak 4:**
22 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 326,93.
- **Apirilak 21-27:**
27 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 433,68.
- **Apirilak 14-20:**
38 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 447,02.
- **Apirilak 07-13:**
29 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 373,63.
- **Martxoak 31-Apirilak 06:**
30 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 340,27.

URNIETA

- **Maiatzak 12-18:**
8 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 241,58.
- **Maiatzak 5-11:**
7 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 225,48.
- **Apirilak 28-Maiatzak 4:**
7 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 402,64.
- **Apirilak 21-27:**
18 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 595,91.
- **Apirilak 14-20:**
19 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 660,33.
- **Apirilak 07-13:**
22 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 402,64.
- **Martxoak 31-Apirilak 06:**
3 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 96,63.



URKO VALLEJO

Positiboen garapena Andoainen

Gipuzkoako intzidentzia-tasa handia zenean ere, Andoaingo egoera egonkor samarra zen. Azken bi asteetan joera on hori areagotu egin da.

- Maiatzak 10-16: +7 | Intzidentzia-tasa: 173,47.
- Maiatzak 3-9: +19 | Intzidentzia-tasa: 260,21.
- Apirilak 29-Maiatzak 2: +20 | Intzidentzia-tasa: 380,30.



URKO VALLEJO

Positiboen garapena Urnietan

Gorunzko joera eten egin da, oro har. Eta hobekuntza hori Urnietara iritsi dela ondorioztatu daiteke. Astelehen bi egunetan ez da positiborik izan.

- Maiatzak 10-16: +10 | Intzidentzia-tasa: 273,80.
- Maiatzak 3-9: +7 | Intzidentzia-tasa: 289,90.
- Apirilak 29-Maiatzak 2: +11 | Intzidentzia-tasa: 531,49.



Urnietako
udala



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- **Osasun Sailak zabalduetako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.**
- **Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.**
- **Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN**

www.aiurri.eus



Burdinako kideak Gordailua-ko egoitzara egindako bisitan. Ezkerretik hasita, Juanjo Cancio, Joxe Alcantara, Joseba Salvador, Xabier Arruti, Xabier Kerejeta, Javier Gallo eta Joseba Urrutia. BURDINA



Burdinak bildutako tresneriaren gordailua

Burdina taldea tresneria zaharren gordelekua moldatzen ari da, Extremadura kalean duen egoitzan. 20 urte eta gehiagoko ibilbidean biltzen joan den era guztietako ondare historikoa biziberritzeari eta katalogatzeari ekin dio

Xabier Lasa ANDOAIN

Burdinako boluntarioak garai batean jubilatuen elkarte eta Euskaltzaleen Topagunea izandako egoitzan ari dira lanean hain zuzen ere, Udalarekin beraren erabilpenari buruzko hizarmena sinatu eta gero. Ander Otaño Burdina taldeko kideak adierazi duenez, “taldeak berreskurapen lanak egin ohi ditu karobi, burdinola, garbitoki, errota eta abarrekin, baina aldi berean, ondare historikoarekin

zerikusia duten tresna eta objektuak ere jasotzen ditu, eta horientzako biltoki egokia izan litekeela iruditzen zaigu Extremadura kaleko egoitza”.

URTETAN BILDUTAKO TRESNERIA EXTREMADURA KALEKO EGOITZAN BILTZEN ARI DIRA

Andoaindarrentzat iraganean ohikoak ziren ogibide zaharrek zerikusia duten tresnak ari dira biltzen Gordelekuan, gehienbat: nekazaritza, erlezaintza, ikazkintza, meagintza, artzantza,

ANDOAINDARRENTZAT IRAGANEAN OHIKOAK ZIREN OGIBIDEETAKO OBJEKTUAK JASO DITUZTE BERTAN

trenbidea... Elementu horiek txukundu eta biziberritzeaz gain katalogatzen eta kategorizatzen ari dira egoitzan. Ez dute biltoki hutsa izatea nahi, Otañok gogoratu duenez, “Andoaingo eta andoaindarren lanbide zaharrek lotutako memoria bizia nahi luke izan. Gure arbasoen bizimodua eta utzi diguten ondare historiko materiala ezagutarazteko baliatu nahi dugu”.

Alde horretatik, Otaño oso baikor agertu da, esate baterako, udal artxiboarekin lankidetzan 2021eko otsailean antolatu zuten “Errituak Andoainen XX. mendearen hasieran” erakusketarekin. “Ondare materiala eta testuak uztartuz andoaindarren jainkozaletasuna eta erlijioa azaltzea zuen helburu erakusketak, eta hori modu pedagogikoan egin zela iruditzen zaigu. Aukera egokiak izan litezke antzeko erakusketak, denboraren joanarekin ezkutatuta dauden eta ezezagunak zaizkigun historia pasarteak ezagutzeko, eta horrela, iraganeke Andoain eta andoaindarren erradiografia bat osatzen joateko”.

Bestalde, Burdinako kideek ez dute baztertzin Gordelekua etorkizunean erakusketa etnografikoak egiteko espazioa ere izatea.

Deialdi berezia herritarrei

Otañok andoaindarrei honako eskakizuna luzatu die, “etxean gordeta daukaten tresneria zahararen bat baldin badaukate,

eta ez badakite zer egin berarekin, ekar dezatela hona. Esku-zabalik hartuko dugu. Txukundu eta katalogatu egingo dugu”.

Azken aldian, 2019ko uztailaren zende zen Manu Izagirre Burdina taldeko kidearen zenbait ondare material jaso dute Extremadura kaleko egoitzan, familiak dohaintzan eman baitie.

Gordailua-rekin harremanetan

Gordailua Gipuzkoako kultur ondarea biltzea, zaintzea eta ezagutaraztea helburu duen zentroa da; Foru Aldundiaren babesean sortua da, eta Irunen kokatzen da. Burdina elkarte kideak zentro horrekin harremanetan jarri dira azken hilabeteetan. “Gu boluntarioak gara, eta ondare historikoa gordeztearen eta zabaltzearen kultur sakontzeko grinez gabilta. Horrexegatik, Gordailua zentroko teknikariak Andoaingo gure egoitza honetara gonbidatu genituen; batetik, ikus zezaizen zeintzuk diren gure egitasmoak, eta bestetik, irakaspenak eman diezazkiguten. Oso lan polita egiten ari ginel eta bide beretik segitzera animatu gintuzten”.

Denbora berean, Gordailuak Irunen daukan egoitzara bisita egin zuten Burdinako boluntarioek, eta bertan Xabier Kerejeta bertako etnografia teknikariaren eta Itziar Gutierrez arte historian aditua den andoaindarren azalpenak jaso zituzten.

Energia-hobekuntzak San Juan bataiatzailean

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak 175.000 euro inbertituko ditu birmoldaketa-lanetan, egoitzan energia-sistema eta -teknologia garbi eta eraginkorrak ezartzeko

Erredakzioa ANDOAIN

Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko diputatuak eta Maite Peña Gizarte Politika diputatuak hitzarmena sinatu dute, energia aurrezteko eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko. Aldundiak zabalduetako oharren arabera, "Andoingo adinekoentzako egoitzari dagokionez, azterketa bat egin da energia sortzeko dauden aukerak zeintzuk diren ikasteko, eraikinaren ur bero sanitarioaren eta berokuntzaren beharrak asetzeko, eta beti ere errentagarritasun ekonomikoko tarte bideragarri bartzuen barruan. Aukera ezberdinak elkarrekin aztertu ondoren, energia sortzeko sistema hobetzea erabaki da, egungo galdarak eraginkorrak diren galdara berriekin ordezkatzu eta egungo eguzki instalazio termikoa



Peña eta Asensio diputatuak. ALDUNDIA

zaharberrituz. Konponbide horren arabera, energia aurreztuko da (209.096,75 kWh/urte), eta CO²-emisioak murriztuko dira

(44,09 tona/urte). Proiektu honetarako ekarpena 175.000 eurokoa da". Proiektua osoaren kostuaren %50a da hori.

Lamiak eta lloronak erakusketa

Bigarren urtez jarraian, kulturartekotasuna sustatu asmoz, artea eta mitoak uztartzeko egitasmoa aurkeztu dute Andoainen. "Lamiak eta lloronak" erakusketaren hainbat pieza Goikoplazan ikusgai daude, datorren maiatzaren 28ra bitarte. Ostiral arratsaldean egin zuten aurkezpen ekitaldia eta bertan izan ziren Ongi Etorri Eskola ekimeneko ordezkariak eta Andoingo Udal ordezkariak. Maider Lainez alkateak eskertza adierazi zien egitasmoa sustatu dutenei, eta datozen egunetan arkupea hurbildu eta bisitaldia egitera gonbidatu zituen herrikideak.



AIURRI

KOMUNITATEA

LA SALLE BERROZPE ANDOAIN

Ia erabateko enplegarritasuna

Maiatzaren 31n, Lanbide Heziketako zikloetan aurrez izena emateko epea irekiko da Euskadin, eta epea ekainaren 18ra arte luzatuko da. Ziklo guztien artean, industria-arlokoek izaten dute enplegarritasun handiena. La Salle Berrozperen kasuan, ia %100eko enplegarritasuna lortzen dute, baita pandemia-garaian ere. Ziklo horiek, berez edo prestakuntza dualari esker, lan-merkatuan berehala sartzeko aukera ematen diete gazteei, baita gero unibertsitatera jotzeko ere. Hala eta guztiz ere, zikloak ez dira guztiz betetzen, ez baitituzte neskak erakartzen.

Industria-arloko zazpi ziklo

La Salle Berrozpek industria-arloko zazpi ziklo ditu, horietatik lau goi-mailakoak, bi erdi-mailakoak eta bat oinarritzako prestakuntzakoa. Gradu horiek %100eko enplegarritasuna dute: Administrazioa eta Finantzak, eta Mantentze-lan Elektronikoa (biak goi-mailakoak); eta Soldadura eta Galdaragintza, eta Mantentze-lan Elektromekanikoa (biak erdi-mailakoak). Bestalde, Proiektuen Diseinuak (goi-mailakoa) %92ko enplegarritasuna izan du, eta Produktzioaren Programazioa Fabrikazio

Mekanikoan zikloak (goi-mailakoa), berriz, %85ekoa. Horietan guztietan, ikasle gehienek beren espezialitatean lortzen dute enplegua, prestakuntzari lotutako enplegua, alegia. Oinarritzako Lanbide Heziketari dagokionez, La Salle Berrozpek Elektrizitatea eta Elektronika zikloa eskaintzen du. Ziklo horren helburua ikasleek erdi-mailako ziklo bat ikasten jarraitzea da eta, gaur egun, hala egitea lortu dute kasu guztien %89k.

LH Dualaren modalitatearekin 'ikasketa eta lana txandakatuz' ikasi nahi duten eta horretarako baldintzak betetzen dituzten ikasleek espezialitate guztietan izango dute horretarako aukera.

Ikastetxean, bi ikasturtetan zehar garatzen diren heziketa-zikloak metodologia berritzaile batekin eskaintzen dira, erronketan oinarritua. Metodologia horrek proiektuetara bideratutako ezagutza teorikoak eta praktikoak hartzen ditu barne, benetako arazoak taldean konpondu ahal izateko.

La Salle Berrozperen eskaintza ezagutu eta beren zalantza guztiak argitu nahi dituztenak ikastetxera etorri ahal izango dira ostegun honetan, maiatzaren 20an, 17:00etan.



andoainDARRA
euskaraz

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Udalgintza du oinarri Euskal Fondoak bere jardunean, udalgintza eta elkartasuna. Orain lau bat hamarkada sortu zen elkar-tea, eta tokiko udal izaera duten erakundeekin eta aldundiekin egiten du lan, hain zuzen ere, 117 bazkiderekin. Juanma Balerdi da elkar-tearen gidari nagusi: “Udalgintza dugu ardatz, alegia, udalen bidez garapen proiektuak gauzatzen ditugu nazioartean; horretarako tresna gara”.

Guatemala, El Salvador, Mendebaldeko Sahara, Kuba eta Nikaragua dituzte abiapuntu, besteak beste. Ildo beretik, tokian tokiko premietara egokituta egiten dute lan, bertako errealitateaz jabetuta, eta ahalmenen zein baliabideen arabera sortzen dituzte harremanak. Hala, euskal udalgintza nazioartearekin uztartzen dute, eta “diru laguntzetatik harago” doala aitortu du Balerdik, “elkartrukea ematen da: esperientzien, zerbitzuen eta programen uztartzea, elkarrengandik ikasteko”. Beste hainbat tek legez, duela 20 urte ekin zion Urnietak hartu-emanari Euskal Fondoaren eskutik eta, harrezkero, konpromisoz eutsi dio erronkari: aurten, Kuba, El Salvador eta Mendebaldeko Sahara izango ditu udalak hizpide.

Habana, Kuba

“Inguruko herrialdeekin alderatuz gero”, azaldu du elkar-tearen zuzendariak, “abantailak zein indarguneak dituen herrialdea da Kuba”, baita giza baliabideei dagokionez ere, zeren eta “bide-urratzaile” baita bai hezkuntzan, bai osasungintzan. Aipatutako bi esparru horietan makina bat aditu baditu ere, espezializazio ezaz mintzatzea garrantzitsua begitantzen zaio zuzendariari; esaterako, haren esanetan, adinekoei bideratutako osasungintzan, ez dituzte alor jakin horretarako baliabide berezituak: “Gurean, adinekoen osasuna eta giza arreta uztarturik daude, eta horren arabera artatzen dira herritarrak: etxez etxeko arretatik hasi eta egoitzetara bitarte”.

Tutoretzapeko etxeren aferari dagokionez ere, ez zuten inolako eskarmenturik “zahar-etxeak zituzten soilik, eta askotariko egoerakoak”. Eta garrantzitsua deritzo zuzendariak arreta-motak bereizteari, haren aburuz, ez baita gauza bera laguntza osoa



Juanma Balerdi Euskal Fondoak elkarteko zuzendaria. AIURRI

Elkartasun zubia

Bi hamarkada bete dira aurten Urnietako Udalak Euskal Fondoak elkar-tearekin elkarlanean jarduteari ekin zionetik. Harrezkero, hamaika proiektutan lagundu du, guztiak lankidetzara oinarri

behar duen pertsona bat edo hain menpekoea ez den beste bat. Ondorioz, hutsune horri erantzun asmoz, azken 20 urteetan “kubatar erara zerbitzu horiek sortzen eta egituratzen” aritu da Euskal Fondoak, hots, zerbitzuak ezberdintzen eta espezializatzen, baita aferarekin zerikusia duten erakundeetan eragiten ere.

Alabaina, euskaldunek kubatarrengandik zer ikasi badutela nabarmendu du zuzendariak. “Hemen zahar-etxeek erregimen ospitalarioa dute kasik; han, oster, biziagoak dira”. Halaber, animazio soziokulturala sustatzen dute Habanan: garapen kognitiboaren galerari aurre egiteko entrenamenduak egiten dituzte; papiroflexia, tai ji eta xakea. “Guri arrotzak zaizkigu horiek”, uste du Balerdik, “zur eta lur gelditu zen jendea jakintza horiek guztiak hona ekarri genituenan”.

Bere jarduteko esparrua osasunari bideratutako zentroetara zedarritu gabe, auzoan, lurraldean, nola eragin pentsatzea du orain helburu elkar-teak. Horri lotuta, egitasmoaren dinamotasuna nabarmendu du Balerdik, “egoeraren arabera egokitzen ditugu proiektuak”. Eta horixe da azken urtean, pandemiaren etorrerarekin egin behar izan dutena, egokitu. “Urte eta erdian hemengo osasun-sistemak hartutako eskarmentua partekatu nahi diegu; bisitak nola egin, jakiak eta lan-tresnak nola manipulatu, desinfektatu eta abar”. Horretarako nahitaezkoak diren baliabideak ere ipini nahi dituzte kubatarren eskura. Finean, beste behin, logika bati jarraiki, zerbitzuak sortu, daudenak hobetu eta ahalik eta eremu zabalean eragina izan nahi du Euskal Fondoak.

Zortzi udalerri, El Salvador

Hiruzpalau udalerritan martxan jarritako proiektu pilotu batekin lur hartu zuen Euskal Fondoak El Salvadorren, 2004. urtean. Gerra zibil baten biharamunean zegoen herrialdea, emakumeek parte-hartze aktiboa izan zuten guda batean, hain zuzen. Nolanahi ere, antolakuntza aldetik, emakumeen borroka-estrategiak bigarren mailan gelditu ziren; bakea, lehenik; emakumearen auzia, ondoren. Hari horri eutsi zion, beraz, elkar-teak, tokiko eragile feministekin elkarlanean, borroka horiek erakundetzeko. “Antolakuntza aldetik, oso aberatsak ziren” du gogoan zuzendariak, “batez ere, mugimendu ezkertiarrean. Beraz, ikusi genuen gerran parte hartutako mugimenduek bazutela ahalmena aldarrikapenak udaletxeetara eramateko”.

Zergatik hor?

Makina bat herrialde daude munduan, baina Euskal Fondoak bost ditu, batez ere, oinarri. Juanma Balerdi zuzendariak badaki zer dela eta: euskal lankidetzan erreferente izan dira. Bestalde, borroka politiko-militarretatik instituzionaletara igaro dira, eta 80. zein 90. hamarkaden bitartean 25.000 bat euskaldunek jo zuten herrialde horietara brigadista, akademiko zein misiolari gisa. “Oso identifikatuta sentitzen zen jendea”, azaldu du Balerdik, “horixe zen garai horretako argazkia; nora jo ohi du Euskal Herriko elkartasunak? Hara”. Bada, hori bera egin zuen Euskal Fondoak, herrialde horietan bere hazia erein, bertakoekin elkarlanean. Harreman historikoetatik, politikoetatik bezain pertsonaletatik hasi zuen bidea elkar-teak, 117 euskal bazkideren iritziak iritzi, oinarriko bi zutaberekin: adostasun politikoa eta aniztasun ideologikoa, alegia, askotariko pentsamenduak izan arren, beharrezkotzat zuen Euskal Fondoak indarrak batzea herrialdeei laguntzeko. Eta elkartasun hitza inoiz entzun bada, pandemiak sortutako egoeran izan da hori. Izan ere, elkar-tearen jarduna oztopatu du, beste hainbat sektore lez. Aitzitik, ez da nahikoa traba izan udalekin elkarlanean aritzeko; zuzendariak aitortu duenez, “elkartasunerako beharra du jendarteak. Agerian gelditu da ez dela arazo isolatua, tokian tokiko eragina duen auzi globala baizik”. Horrela, jarduna ez etetea da elkar-tearen erronka orain. Horrenbestez, eragiten jarraitzeko gogoia du Euskal Fondoak, eta, aurki, beste hainbat lurralderekin hartu-emana sustatzeko aukera mahaigaineratuko du, inor atzean utzi gabe indarberritzeko.

Gauzak horrela, esperientzia aitzindari horietatik sortutako gida-liburuak eta protokoloak abiapuntu garrantzitsua izan ziren: 2009. urtean berdintasun lege bat onartu zuen El Salvadoreko Gobernuak, hein batean, elkarteak egindako lanari esker. Halaber, eskukada bat udalerri-tan hasitako egitasmoa, bost bat urteren ostean, probintzia osora zabaltu zuten; orotara hamazazpi udalerri-tan hasi ziren lanean, baita horien arteko saretze-lane-tan ere. Egun, zuzenki zein zehar-ka udal-plangintzetan landu beharreko gaia da parekidetasu-na, derrigorrezkoa da auziari bideratutako aurrekontua izatea eta baliabide teknikoak ipini behar ditu agintaritzak herrita-rreren eskura.

Edonola ere, elkartearen jar-duna ez da soilik horretara mu-gatzen, beste lan-ildo batzuk ere badituzte El Salvadorren. “Lati-noamerikan, batzaz beste, egune-ko hiru bat ordu igarotzen ditu familia batek ura etxeratzeko lanetan”, azaldu du zuzendariak. Zeregin hori, maiz, emakumeena izan ohi da; horregatik, buru-belarri dihardu Euskal Fondoak horretan ere, esparru horretan emakumearen ahalduntzea ema-teko, eta uraren kudeaketari dagokionez, erabakiguneetan parte-hartzaile aktibo izateko.

Aurrera begira, ia bi hamar-kadako esperientziak probintzie-tatik estatura salto egitea du helburu elkarteak. Horretarako, bertako emakume eragileen gi-daritzapean, elkarrengandik oso bestelako ezaugarriak dituzten zortzi herri zehaztu ditu, San Salvadorren erreferente den Emakumearen Etxearen gisako egitasmoak sustatzeko.

Esanak esan, proiektu konple-xua dela uste du Balerdik, epe luzeko ikuspegiarekin erreparratu beharrekoa: “Ahalduntze proze-su bat ez da bi egunetan egiten, eta horren eskarmentua dugu hemen. Gurean, aurrerapausoak egon badira ere, parekidetasun arazoek jarraitzen dute, baita kolektibo jakin batzuekiko mes-pretxuzko jarrerak ere”.

Tinduf, Mendebaldeko Sahara

Daira deitzen zaie herriei Men-debaldeko Saharan; probintziei, aldiz, wilaya. Bada, 90. hamar-kadaren bueltan sortu ziren lehen senidetze-harremanak Euskal Herriko herrien eta dai-ren artean. Horren ondorio dira,

besteak beste Saharako haurrei zuzendutako udako egonaldiak: haurrak ziren bertan gertatzen zenaren bozeramale, elkartasu-na eta Sahara herriaren borro-ka bizirik mantentzeko gako. Hartu-eman sinboliko horietatik harago jotzeko premia ikusi zuen Euskal Fondoak, izan ere, udalerrien borondate ona naba-ria zen, baina garrantzitsua zen elkartasuna toki jakin batzue-tara ailegatu baino, lurralde osora iristea.

Hori horrela, Sahara Koordi-nazio Unitatea sortu zuten, lege-biltzarreko alderdien onespenez, baita zenbait erakunderen babe-sarekin (Eudel eta Emakunde, tartean): batetik, koordinazio unitate gisa jarduteko; bestetik, Frente Polisarioaren eta elkarteen arteko zubi-lana egiteko; eta, azkenik, erakundeen lotura ar-tikulatzeko. Indarrak bateratzea beharrezkotzat jo zuen elkarteak, zuzendariaren aburuz, senide-tzeak dakarren balio sinbolikoaz gain, laguntza humanitario sa-kona gauzatzeko: “Bertako agin-tariekin eseri ginen, beraz, epe luzera begira zituzten premiak entzuteko”.

Kanpamenduak bizirik man-tenantzeko garraio publikoaren beharra nabarmendu zuten ber-tako buruek, pertsonak zein lehengaiak toki batetik bestera mugitu ahal izateko. Hortaz, 2002. urteaz geroztik garraio-azpiegi-tura sendotzea du helburu Eus-kal Fondoak. “Ibilgailuen man-tenuari” ere erreparatu behar zaiola gogorarazi du Balerdik, “gainera, baldintza horietan oso mantenu gogorra dute”. Azpie-gitura bereziz hornitu behar dira ibilgailuak. Lehen, Balerdik adierazi bezala, “arazo handia” zuten gasolinarekin, bidoietan garraiatzen zuten eta desertuko harea sartzen zitzaizen depositue-tan, ibilgailua izorratzeraino: “Beraz, basamorturako berariaz sortutako gasolindegia sortu genituen Euskal Herrian”. Hori ez ezik, mantentze-lanak egiteko tailerrak ere egin zituzten eta sahararrak (gizonak zein ema-kumeak) konponketa-lanetan trebatu.

2021. urteko proiektuaren fun-tsa erakunde publikoen eguzki-sistemak eta sorgailu osagarriak mantentzeko eta konpontzeko unitate mugikor bat hornitzea da; urtez urtez aletxo bat ipintzen dio Euskal Fondoak, eta horixe da aurtengoa.



Kuba. EUSKALFONDOA

Urnietako ekarpena hiru lurraldetan

Udalgintzatik eta udalgintzarentzat egiten du lan Euskal Fondoak elkarteak. Hamaika borroka erakundetzea du xede, besteak beste. Eta, horretarako, beharrezkoa du euskal udalerrien laguntza, nazioarteko makina bat txokoren errealliteekin hartu-eman sortzeko. Esperientziak zein jakintzak uztartzeko, ezagutzeko eta ezagutarazteko. Finean, emateko eta jasotzeko.



El Salvador. EUSKALFONDOA



Mendebaldeko Sahara. EUSKALFONDOA



Aiurri.eus, unean uneko albistegia



Egoera epidemiologikoa, egunez egun



Kirol-hitzorduen jarraipena



Egunean Behin



Koronabirusaren gakoak



Bertsozetasuna



Kirol-albisteak



Bideo-sorta zabala



Argazki-bildumak



Agenda atala



Ane Dominguez urnietarra eta Marta Ollacarizqueta futbol jokalaria. AIURRI

"Amaiera ona ematea da helburua"

ANE DOMINGUEZ ETA MARTA OLLACARIZQUETA UKE FUTBOLEKO SENIORRAK Euskal Ligara igotzeko aukerarik gabe, Kopan lehiatuko da aurki Urnieta. Ez da denboraldi makala izan aurtengoa; alabaina, lortu dute amaierara gogoz iristea

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Orain bederatzi bat urte joen zen Marta Ollacarizqueta andoaindarra Euskaldunatik Urnietako Kirol Elkartera. Ane Dominguez urnietarrak, ostera, zazpi urte eman ditu Urnietan, Añorgan eta Euskaldun aritu ondoren. Taldeko beterranoak dira, taldearen iparrorratz. Aurtengoa ez da, baina, ohikoa izan: ez da jaitsiera-faserik izan; bai, ordea, Euskal Ligarako igoera. Dena dela, beren taldeko laugarren postua lortu dutenez gero, asmatu berri den kopan lehiatzen hasiko dira, aurki. Lehen geldialdia, Inxaurdiren aurka. Amaiera ona ematea espero dute, zeren eta inoiz aurreikusitako ez bezalako egoeran esango baitote agur futbol-ibilbideari.

Amaitear da aurtengo denboraldia. Atzera begira jarrita, nolakoa izan da?

Marta Ollacarizqueta: Apur bat arraroa izan da. Aurre-denboraldia abuztuan hasi genuen, aurreko urteetan baino zertxobait beranduago. Hiru hilabetez egon ginen entrenatzen, jakin gabe lehiaketa noiz zen hastekoa. Jarraian, etenaldia egon zen, pare bat hilabetekoa. Ondoren, entrenamenduei eutsi genien berriro ere, eta otsailean hasi zen denboraldia; borondatezkoa zen parte-hartzea, alegia, zenbait taldek erabaki dute aurten ez lehiatzea.

Zuek, ordea, parte hartzea erabaki zenuten.

Ane Dominguez: Halaxe da. Batzuek zalantza genuen aurtengo denboraldia hasi ala ez. Baina Aitor entrenatzailea tematu egin zen lehiatzeko, eta, beraz, egoera epidemiologikoak ahalbidetu zuenean hasi genuen txapelketa.

Inork gutxi aurreikusi zuen itxialdia. Zein eragin izan zuen zuen taldean?

A.D.: Joan den urtean, erdizka gelditu zen denboraldia. Gazi-gozoa izan zen amaiera.

M.O.: Guztiok harrapatu gintuen ezustean, bai futboleko, bai egunerokoan. Egia esan, nahiko gustura ginen emaitzekin; ez zen gure denboraldi onena izaten ari, baina, behintzat, lehian ginen. Gainera, entrenatzaileen azken urtea zen. Elkar agurtzeko era tristea izan zen.

A.D.: Finean, aurten jende gabe egon gara. Ez da jokalaririk egon, eta aurreko denboraldiaren amaierarekin zerikusia duela-koan nago. Ez aurrera ez atzera gelditu ginen iragan denboraldian, eta utzi egin du jendeak futbola.

Zein nolako eragina izan zuen zuengan geldialdiak?

M.O.: Niri itxialdia ongi etorri zitzaidan, neraman gehiegizko bizi-erritmoa medio. Bestalde, gure egunerokoa moldatu behar izan genuen eta aldaketa horien artean sartzen zen futbola. Aurretik egin ezin nituen hamaika gauza egiteko aprobetxatu nuen itxialdia.

A.D.: Neu ere egoera berean izan nintzen. Oso gustuko dut kirola egitea, eta, hortaz, futboleko aritu ezin arren, beste kirol batzuk egiten nituen.

Nolakoa izan zen etenaldi luzearen ostean entrenamenduetara itzultzea?

M.O.: Denboraldia bukatutzat jo zen itxialdian. Baina uda izan zenez, birusari dagokionez, egoera apaleko aldia, iragarri zuten denboraldiari ekingo geniola, nahiz eta ez jakin noiz zehatz mehatz. Entrenamenduak berriro hartzeak pandemia aurreko bizitzarekin gogoratzea ekarri zigun. Gainera taldeko kirola da, eta elkar ikusteko aukera ematen zigun horrek.

A.D.: Izugarri eskertu nuen entrenamenduekin hastea, jendearekin egoteko. Hutsetik hasi behar izan dugu aurtengoa, gainera.

Izan ere, etenaldiaren ostean, denboraldi berrian, oso bestelako talde batekin egin zenuten topo.

A.D.: Nabarmen aldatu da jokalaria zein entrenatzaile aldetik. Azken urteotan talde trinkoa izan dugu. Aurten, ia jokalaria gabe ginen hasieran, eta gure egoera berean ziren Trintxerpeko jokalariekin elkartu gara taldea osatzeko. Denborarekin, areagotu da gure arteko konfiantza eta talde-izaera sendotu dugu apur bat, nahiz eta lehen bezainbestekoa ez izan.

M.O.: Aurtengo denboraldia ahal moduan salbatzea izan dugu helburu, lehia galdutzat ez emateko. Nire azken urteak dela jakinda, pena ematen dit ez izatea betiko taldekideekin. Entrenatzailearentzat, saiakerak saiakera, ez da urte erraza izan.

Zaila izan al da talde-izaera egonkortzea?

M.O.: Gugana jo dute, taldea osatzeko nahikoa jokalaria izan ez arren, jokatzeko gogoz zirelako. Motibazio handia dutela ikusita, erraza izan da. Beren helburua ondo pasatzea eta jokatzeko gurea bezalaxe. Konplexua izan da, entrenamendu gutxi eta zazpi partida izan direlako, baina helburua lortu dugu.

A.D.: Taldea egonkortzea eta ongi pasatzea izan da aurtengo hel-

burua. Konplexua izan da pandemiak eragindako egoera, eta, sikiera, arnasa hartzeko baliagarria izan zaigu.

Areagotu al dira lesioak?

A.D.: Bai. Ni neu lesionatuta nago: gaizki dut orpoa, eta, atzera begira jarrita, ez dut sekula lesio nabarmenik izan. Touring taldearen aurkako norgehiagokan izan zen, eroraldi txar baten ondorioz. Hala ere, lehenagotik ahul nuen hanka. Osasun-frogak noiz egingo dizkidaten zain nago orain.

M.O.: Egon dira lesioak, eta etenaldiak ziurrenik eragina izan du horretan. Dena dela, gutxi gara eta jolaskari bakoitzaren osatze-denbora ez da nahikoa izan; horrexegatik egon dira bererortzeak, hots, erdizka osatutako jokalaria, behar baino lehen hasi behar izan dira berriro jokatzen. Horrek eragina du.

Ibilbide luzeak azken geldialdia duzue biek ala biek aurtengoa.

M.O.: Oso etapa polita izan da, baina jada bukatutzat eman nahi dut. Nahiago dut zapora gozorekin gelditu, luzatuko banu, erreata amaituko bainuke. Beste lehenastun batzuk ditugu orain bizitzan, beste motibazio batzuk. Urte asko igaro ditugu futboleko, baina zerbait berriari ekiteko garaia dugu orain.

A.D.: Hori da, izugarritzako pena ematen dit denboraldia horrela bukatzea, baina neuk ere nahia go amaitutzat eman. Gizonezkoetan ez bezala, emakumezkoetan adin-tarte nabarmena dugu eki-poan. Belaunaldien arteko salto nahiko handia dago gure eki-poan, eta, oro har, emakumeen taldeetan. Martak eta biok, esaterako, 25 urte egingo ditugu aurten, eta zortzi urte gazteago den jendearekin, hots, 17 urteko nerabeekin jokatzen dugu; nabari da hori. Bizitzako aldi ezberdinak bizi ditugu ekipoa osatzen dugun jokalariek, adinak baldintzaturako oso bestelako bizi-planak. **Ezer gutxi falta da denboraldia amaitzeko. Zein aurreikuspen egiten duzue?**

A.D.: Nire erronka pertsonala hanka osatzea eta taldekideei ahalik eta gehien laguntzea da. Talde gisa, horrela jarraitzea eta ahalik eta partida gehien irabaztea, ez baita batere erraza, egoera dela-eta.

M.O.: Kopa irabaztea litzateke idealena baina, batez ere, hemen pasatako urteei amaiera ona ematea da helburua.



Mikel Iturria Mallorcako Challengean. CHALLENGE

Denboraldiko lehen garaipena eskuratzetik gertu izan zen

TXIRRINDULARITZA Mikel Iturria Trofeo Port d'Andratx - Mirador d'es Colomer lasterketan hirugarren sailkatu zen

Erredakzioa ANDOAIN

Euskaltel Euskadi taldeko ur-nietarrak maila bikaina du, eta aurreko astean taldearentzat lehen garaipena eskuratzetik gertu egon zen. Mallorcako itzuliko etapa menditsuan hirugarren

sailkatu zen, eta horrek motibazio erantsia eman beharko lioke taldeari. Aukera berriak izango dira hurrengo hilabeteetan eta, gauzak ondo, Iturriak Espainiako Vueltako irteeran egoteko aukera izango du.



Laengen, Anaconda eta Iturria podiumean. CHALLENGE



Kadete mailakoak. ANDOAINGO

Mendaroko eta Segurako errepideetan lehian

MENDARO, 21.05.16

Kadeteak, sailkapena:

1. Aimar Alarcia (Donosti).
2. Guzman Grecco (Zadorra).
3. Mikel Regil (Q. Albeniz).
4. Markel Etxarri (Andoain).
37. Ekhi Arrieta (Andoain).
55. Iker Ugartemendia (Andoain).
63. Ganix Ormazabal (Andoain).

SEGURA, 21.05.15

Jubenilak, sailkapena:

1. Nicolas Alustiza (Bellota).
2. Aimar Erostarbe (Ulma).
3. Haimar Etxeberria (Burun).
32. Xabat Alonso (Andoain).
69. Mikel Goikoetxea (Andoain).
88. Iker Atxaga Robles (Andoain).



Jubenil mailakoak. ANDOAINGO



Nahikariren gol erabakiorra

FUTBOLA "Garaipen garrantzitsua Vallecasen eta laugarren postuan kokatu dira txuri-urdinak. Taldeak sentsazio onak erakutsi ditu datorren igandean Atletico Madril etxean hartzeko. Aupa Real!", horrela amaitzen da Realaren webgunearen kronika. Nahikari Garciaren parte hartzea, beste behin ere, erabakiorra izan zen. 85. minutuan erakustaldi fisikoa egin zuen Leire Bañosek, eta area ertzean zain zuen Nahikari. Harrapakari onenen pare, gose zen baina bere unearen zain itxaroten asmatu zuen. Baloia jaso eta sareratzea lortu zuen. Gol horri esker 1-2koa jarri zuen markagailuan. Futbolearen ezaguna den "Killer" horietakoa da.



Jardunaldi kaskarra

FUTBOLA Asteburuan bost partida jokatu zituzten Euskaldunako taldeek. Oro har, partida gehienak berdinduta egon ziren arren, azkenean norgehiagoka bakarra irabazi zuen Euskaldunak. Gauzak horrela, datozen partidei begira lanean jarri beharko dute, ahalik eta puntu gehien eskuratzeko.



ITALIAKO GIROA

AIURRI.EUS | @aiurri

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Xabier Arizkorreta palista, artxiboko irudian. ARIZKORRETA

Gaztelekuko pilotaria izatetik, txapelduna bilakatzera

PALA Xabier Arizkorretak kirol egokituko txapelketa irabazi du. Hernaniarra Gaztelekun aritu da urte luzez

Erredakzioa ANDOAIN

Garaipen handia eskuratu zuen Xabier Arizkorretak 2021eko Kirol Egokituko palako finalean. Hernaniarrak urteak eman zituen Andoaingo Gazteleku Pelota Eskolan trebatzen eta, egun, ibilbide interesgarria duen kirolaria bilakatu da.

Xabier Arizkorreta hernaniarrak kirol egokituko finala irabazi zuen Eneko Sagarmendirekin batera asteburuan, Iraitx Hüguren eta Jurdan Arakistainen aurka (25-19). Oro har, norgehiagoka orekatua izan zen, baina Arizkorretak eta Sagarmendik maila hobeagoa erakutsi zuten azken txanpan, eta txapela preziatua lortu zuten.

Arizkorreta kirolari petoa da, izan ere, eskuz eta palaz jokatzen du, baita futbolekin ere; Eibarko futbol talde inklusiboko jokalaria da. Esan beharra dago, urteak daramatzala kirol munduan murgilduta, eta hala erakutsi zuen finalean. Hala ere, lorpen honek trebakuntza handia du atzetik. Gaur egun den txapelduna izatera iristeko lan handia

egin du hernaniarrak; urteak aritu da Andoaingo Gazteleku Pelota Elkartean trebatzen. Hernanitik Andoaingerako jauzia egin zuen 10 urterekin gogoko zuen kirola praktikatzeko. Horretarako, Andoni Alvarez edota Aritz eta Jon Eskudero anaien esanetan jarri zen. Gogo biziz eta ikasteko prest agertzen zen Arrate frontoian ia egunero. Ez hori bakarrik, entrenatzaile lanean sarritan aritzen zen txikienekin, berezkoa zuen pasioa gazteenei ere helarazteko. Xabier Arizkorretak urteak igaro ditu Arrate frontoian, baina segituan bilakatu zen Gazteleku Pelota Elkarteko kide. Egun, Andoaingen entrenatzen ez duen arren, elkarteko jarraitzaile eta kide sutsua izaten jarraitzen du: “Gure pilota eskolako kide izan direnek txapelak lortzen dituztenean asko pozten naiz, baina gaur Xabi Arizkorretak lortu duenak bereziki hunkitu nau. Zorionak Xabier!”, adierazi du pozik Gazteleku elkarteko arduraduna zuen Andoni Alvarezek.



Alazne Conde senior jokalaria. UKE

Seniorrek igoera lortzeko lanean jarraitu beharko dute

ESKUBALOIA Urnieta Quel Abogados taldeak ezin izan zuen garaipena eskuratu Eibarren aurka

Erredakzioa URNIETA

Emakumezkoen senior taldeak ezin izan zuen garaipena eskuratu Eibarren aurka Euskadiko Txapelketako igoeraren lehen fasean (20-15). Gauzak horrela, mailaz igotzeko lan handia egin beharko dute hurrengo partidaren.

Oro har partida kaskarra jokatu zuten urnietarrek. Baloi ugari galdu zituzten eta erasoan ez ziren fin aritu, aurkariaren onurarako. Eibartarrak sutsu hasi ziren jokatzen lehen minututik, nahiz eta urnietarrek aurkariaren erasoari eutsi zioten. 15. minututik aurrera, Eibarko jokalaria erasoan asmatzen hasi ziren, eta zazpi goleko partziala eskuratu zuten. Memento horretatik aurrera eibartarren esku geratu zen partida urnietarrek lan handia egin zuten arren.

Jubenilak berriro ere garaile

Gizonezkoen juvenil taldeak bigarren garaipena eskuratu zuen Gipuzkoako txapelketako azken fasean Arrasateri irabazita (35-26).

Emakumezkoen juvenil taldea ere maila ona erakusten ari da eta jardunaldi honetan Hernaniren aurkako derbian garaipen garrantzitsua eskuratu zuen (19-27).



AIURRI

Andoainek lan handia egin zuen

HERRIARTEKOA Andoainek partida bakarria irabazi zuen Tolosaren aurka (2-1), beraz, oso zaila izango du hurrengo fasera igarotzea. Itzulerako partidaren gutxienez bi partida irabazi beharko ditu eta tanteoa kontuan eduki beharko dute. Hala ere, maila erakutsi zuten Andoaingo pilotariak.




ANDOAIN

Andoaingo jaun eta jabe gomaz

PALA Andoainek Zestoa mendean hartu zuen eta hiru garaipenekin itzuli zen herrira. Pilotari guztiek partida ona jokatu zuten eta sasoi onean daudela erakutsi zuten. Pala motzean eta larruz, berriz, bi norgehiagokak galdu zituzten, hala ere, datozen partidak irabazten saiatuko dira, hurrengo fasera igarotzeko.

Half Triathlon erronka Iruñean

TRIATLOIA Zumeatarra Kirol taldeko Oihana Sanzek, Xabier Ugartek eta Mikel Arteagak parte hartu zuten Hiri Buruzagiko lasterketan; 05:13:54, 04:10:56 eta 04:12:36 denborako markak lortu zituzten, hurrenez hurren. Igerian 1,9 kilometro, bizikletan 74 eta laisterka 17.



ZUMEATARRA

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 20

URNIETA Aurre-matrikulazioa

2021-2022. ikasturtean Udai Musika Eskolan izena emateko epea zabalik dago. Informazioa: Urnieta.eus.

Azken eguna: Maiatzak 24.

ANDOAIN Erakusketa

"Lamiak eta Lloronak" elizetako arkupeetan. Kulturartekotasuna ardatz duen ekimena da.

Azken eguna: Maiatzak 28.

ANDOAIN Aisialdia

"Leitzaran abentura (2007-2010)" eta "Goazen jolastera (2013-2018)" egitasmoak martxan jarriko ditu Udalak, ikasturtea amaitu osteko aisialdia osatzeko. Adin tarte eta txanda ezberdinak. Informazio gehiago Allurralde kiroldegian

Azken eguna: Maiatzak 28.

ANDOAIN Dirulaguntzak

Kultur elkarteek urteko jarduera aurrera ateratzeko laguntza eskatzeko aukera izango dute. Argibideak Bastero Kulturgunean.

Azken eguna: Ekainak 4.

ANDOAIN Erakusketa

Espazio kuttunak, lau artisten eskutik: Iker Valle, Oaia Peruarena, Patxi Laskarai, Gonzalo Etxebarria.

Azken eguna: Ekainak 5.

ANDOAIN Euskara

AEK-k mintzataldeak osatu nahi ditu udan. Parte hartzea doakoa da eta izena emateko azken eguna ekainaren 11 izango da. Informazio gehiago, Andoaingo AEK euskaltegia. Telefonoa: 943 59 17 04.

Azken eguna: Ekainak 11.

URNIETA Aurre-matrikulazioa

2021-2022. ikasturtean euskara ikasteko aurrematrikulazio-epea zabalik dagoela adierazi dute AEK euskaltegitik. urnieta@aek.eus / 662 338 747.

Azken eguna: Ekainak 25.

OSTIRALA 21

URNIETA Ikasleen emanaldia

Lourdes Iriondo musika eskolako trikitixa emanaldia.

17:30, Sarobe.



Faltan 7 konpainiaren "Express" ikuskizunarekin abiatuko da zikloa. BASTERO

ANDOAIN Ikuszikus zikloa

Gabonetan ohikoa zen programazioa atzeratu eta laster iritsiko da Andoainera. Lau saio izango dira denera. Jarraian, lehen bi saioak:

Maiatzak 27, osteguna. "Express" 19:00. Bastero. 5 euro.

Maiatzak 28, ostirala. "Koselig" 19:00. Bastero. 5 euro

URNIETA Ikasleen emanaldia

Lourdes Iriondo musika eskolako piano eta bibolin emanaldia.

19:15, Sarobe.

ANDOAIN Kontzertua

Skakeitan musika taldearen eskutik.

19:00, Bastero.

LARUNBATA 22

ANDOAIN Ikastaroa

Txalaparta "master class"-a. Erritmo desberdinen sakonketa. Izena eman beharra dago: maizorri@gmail.com.

10:30, Olagain eskolan.

IGANDEA 23

ANDOAIN Haur antzerkia

"Play" haur antzerki emanaldia. 2020ko Max sarietan bi sari eskuratu zituen antzezlanak.

17:00, Bastero.

URNIETA Parte-hartze prozesua

Proposamenak herrian zehar jarritako puntu desberdinetan aurkez daitezke, baita Urnieta.eus eta APPren bidez.

Azken eguna.

URNIETA Antzerkia

"Por hacer un favor". Hautagai politiko baten beldur eszenikoa gainditzeko coach batekin jarriko dira harremanetan. Honela, ikuslegoak mitin bat simulatuko duen saio terapeutiko batean parte hartuko du. Umorea eta ironia nahastuta, Trapu Zaharra konpainiaren eskutik.

19:00, San Juan plaza. Doan.

OSTIRALA 28

URNIETA Bertso saioa

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala. Finalisten artean Ekain Tolaretxipi hernaniarra eta Jon Mendiluze irurarra. Sei bertsolari taularatuko dira.


19:00, Sarobe.

IGANDEA 30

URNIETA Haur antzerkia

"Adi, grabatzen, ekin!" familia ikuskizuna. Muxiri zinema asko gustatzen zaio. Oso aktore ona dela pentsatzen du, eta Tomax filma bat egiteko konbentzitu du. **18:00, Bastero. 3 euro.**

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

Crock of Gold: Bebiendo con Shane MacGowan

Lar., 22. 19:00.

Astel., 24. 19:00.
Ikuslearen eguna

Haur filma:

Asteburuan saiorik ez dago.

Aquellos que desean mi muerte

Lar., 29. 19:00.

Ig., 30. 19:00.
Astel., 31. 19:00.
Ikuslearen eguna



SINOPSIS

**Crock of Gold: Bebiendo con Shane MacGowan**

Zuzendaria: Julien Temple. **Generoa:** Dokumentala. **Herrialdea:** Britainia Handia (2020). **Hizkuntza:** Gazteleraz. **Musika:** Ian Neil. **Iraupena:** 124 min.

The Pogues taldearen kantaria

Shane MacGowan The Pogues taldeko kantaria, 90eko hamarkadan Euskal Herrian sona berezia izan zuen taldea. Mundu mailan aski ezaguna da taldea, eta kantariari buruzko dokumentalak oihartzun zabala

izan du mundu zabalean. Orain arte ikusi gabeko irudiak agertzen dira, eta ez dira gutxi MacGowanen adierazpenak. Donostiako Zinemaldian epaimahaiaren saria jaso zuen, iazko edizioan.

SINOPSIS

**Aquellos que desean mi muerte**

Zuzendaria: Taylor Sheridan. **Herrialdea:** AEB (2021). **Aktoreak:** Angelina Jolie, Nicholas Hoult, Finn Little, Jon Bernthal, Aidan Gillen, Tyler Perry... **Generoa:** Thrillerra. **Iraupena:** 100 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Angelina Jolieren azkena

Connor nerabea hilketa baten lekukoa da. Hannah suhiltzailearen laguntza izango du,

atzetik segika dituen gaizkileetatik ihes egiteko. Sute batek kalte gehiago eragin ditzake.



AIURRI

Palestinarekin elkartasuna

Astearte arratsaldean dozenaka herritar elkartu ziren, Zumea plazan. Ekitaldia amaitu aurretik elkartasuna adierazteko adierazpena irakurri zuten: "Une latz hauetan elkartasuna helarazi nahi diogu Palestinako herriari eta horrekin batera, Israelgo Estatuari, politika anexionistarekin amaitzeko exijitzen diogu. Genozidio hau onartezina da".



AIURRI

Grebalariekin elkartasuna

2020ko urtarilaren 30ean eskubide sozialen aldeko greba orokorra deitu zuten. Andoainen, bizilagun batzuek isuna jaso zuten pintaketak egin zituztelakoan. Eta horrez gain, hamaika lagun gehiago identifikatu zituzten. Greba eskubidea aldarrikatzeko eta errepresioa gaitzesteko elkarretaratzea deitu zuten Goikoplazan, joan zen ostiralean.

POSTONTZIA

AINHOAREN SENIDE ETA LAGUNAK ANDOAIN

Bada garaia Ainhoa etxean egoteko

Ainhoa Ozaetaren senide eta lagunak kanpaina abiatu dute andoaindarra 13 urte espetxean preso egon eta gero etxean izateko garaia badela aldarrikatzeko.

Badira 13 urte Ainhoa Ozaeta Frantzia atxilotu eta espetxeratu egin zutela. Frantziako bestelako presoek ezartzen zaien ohiko legedia aplikatuta Ainhoak kalean beharko luke jada. Gainera beti oso urruneko espetxeetan izan dute: Gaur egun, adibidez, Reauko espetxean dago, bisitarako joan-etorria egiteko ia 1.700 kilometro egin behar dira.

Hori guztia salatzekeo bi asteke kanpaina egingo dute. Kanpaina sare sozialetan zabaldutako bideoez gain, hilaren 27an egingo den

udaleko plenoan aurkeztuko den mozioan oinarrituko da. Mozioak eskatuko Andoaingo alderdien ordezkari bat Ainhoarengana joan dadin bere egoeraz informazioa jasotzeko. Bestetik, mozioak eskatzen du ere espetxeko zuzendariarekin bilera egitea Ainhoak pairatzen duen erregimen zorrotza arintzeko neurriak har ditzan.

Azkenik, hilaren 28an, ostiralearekin, arratsaldeko 19:00etan, ekitaldi politikoa egingo da Goikoplazan.

MAIATZAREN 28AN EKITALDI POLITIKOA EGINGO DUTE GOIKOPLAZAN, 19:00TAN HASITA

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Lau bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunerako bitarte, ikusgai izango da webgunean.

Ahal dela, ez dadila tamaina handiko argazkia izan.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez:

619 163 537.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Maite Iruretagoyena
Maitek urteak bete zituen maiatzaren 7an. Zorionak etxekoan partez eta bereziki Oinatz, Aner eta Unaxen partez. Muxuak.



ANDOAIN
Oinatz Zatarain
Korrotxano
10 urte beteko ditu maiatzaren 23an. Zorionak surflari! etxekoan, Unaxen eta Anrerren partez! Muxu handiak.



ANDOAIN
Jon Azpiroz
Maiatzaren 28an gure txikiak 9 urte beteko ditu. Urte askotarako Jon! Muxuak, etxekoak.

Urte askoan!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

- www.aiurri.eus
Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:**
619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **943 300 732**

TELEFONO ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.

Urnieta: 943 006 680.

Larrialdiak: 943 461 111.

Osasun Aholkuak: 900 203 050.

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese-ko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak.
693 692 823
665 719 827

egiteko aukera. 61.000 euro. **687 851 740**
Eduene.

EROSI

Andoain inguruan **lur sail** eder baten bila nabil. Cesar Sistiaga.
620 720 694

SALGAI

Lokal komertziala salgai Andoaingo Juan Bautista Erro kalean. 51 m², solairu bikoitza

MERKATU TXIKIA:

diseinua@aiurri.eus
619 163 537
Arantzibia 4-5, behea. ANDOAIN



- **Astero zozketa: KMO produktuez betetako otarra.**
- **Aurreko 2 asteetako irabazleak: "Joseba" "Mitx".**





Eneko Martiarena. AGUSTINLEITZA

Eneko Martiarena Lizarribar zendu da

Senideek eta lagunek iragarri bezala, haren aldeko omenaldi ekitaldia aurrerago egin dute

Erredakzioa ANDOAIN

Maiatzaren 13an hilik topatu zuten etxean, Eneko Martiarena Lizarribar 47 urteko andoain-darra. Andoainen aski ezaguna zen, eta bere pasio handienetarikoa xakea izan zen. Agustin Leitza elkartearekin edo lagunekin, ohikoa zen partidak jokatzeko edo ikusten egotea. Xakearekin batera sukaldaritzarako joera landu zuen, Irunberri taberna-elkartea zabaldu zutenean sukaldari lanetan aritu baitzen.

Hileta-oharrean senideek eta lagunek adierazi zuten, aurrerago haren omenezko ekitaldi bat egingo dute.



Gure Esku mugimenduko mobilizazioa, artxiboko irudian. AIURRI

'Hamaika Gara' ekitaldia

Gure Esku mugimenduak erreferendumaren aldeko kanpaina abiarazi du, eta uztailaren 3an ehunka herritar elkartu nahi ditu Bilboko kaleetan. Kanpainaren lehen geldialdia Tolosan izango da, larunbat honetan

Erredakzioa ANDOAIN

Erabakitze eskubidearen aldeko Gure Esku mugimenduak Hamaika Gara ekitaldian parte hartzea deitu ditu herritarrek. Datorren larunbatean izango da Tolosako Trianguloa plazan, 12:00tan hasita. Ekimenaren abestiarekin eta hainbat dantzaren laguntzaz, koreografia bat dantzatzeko izango da ekitaldiaren ardatza. Burujabetzarako prozesuan aktibo izan nahi duten herritarrei hiru erronka jarri dizkie Gure Eskuk: erreferendu-

maren aldeko manifestua sinatu eta kanpainaren eskumuturrekoa jantzea, inguruan sinadurak biltzea eta uztailaren 3an Bilboko mobilizazioan parte hartzea.

Herritarren gehiengoak erabaki nahi duela ikustarazi, eta gehiengo hori burujabetzarako prozesuan inplikatzeko da Gure Esku beste hainbat eragile sozialekin elkarlanean sustatzen ari den Hamaika Gara ekimenaren helburua. Beñat Sarasola Gure Eskuko kidearen ustez: "Erabakitze tresnak behar

ditugu herritarren eskura; krisia kudeatzeko eta krisitik nola irtengo garen erabakitze. Begirada altzatzen hasteko garaia da, unean-uneko urgentziek zerikusi handia baitute etorkizuneko erronkekin".

"ERABAKITZEKO TRESNAK BEHAR DITUGU HERRITARRON ESKURA"

BEÑAT SARASOLA



Andoain Txartela. SALKIN

'Andoain Txartela' erabiltzeak saria dakar

5 eta 40 euro arteko bonoak irabazteko aukera eskainiko die Salkin elkarteak, erabiltzaileei

Erredakzioa ANDOAIN

Salkinek, Andoaingo Udalak eta Rural Kutxak duela urte batzuk Andoain Txartela sortu zuten, udalerrri barruko kontsumoa sustatzeko. Kanpaina berria martxan jarri dute, maiatzaren 31ra bitarte, eta erabiltzen dutenen artean 5 eta 40 euro bitarteko bonoak oparitzeko dituzte. Bono horiek udalerriko ostalaritza-guneetan erabiliko dira. Hiru, Aterpe, Txalaka, Bastero, Danena, Olloki, Itxaso, Txitibar, Trañerum, Amama Klaudia, Muga, Lanbroa, Elizondo, Ondarreta, Txuribeltz, 97, Anaiak, Akerbeltz eta Gaztelutxo tabernak parte hartzen ari dira.



TOLARE SAGARDOTEGIA URNIETA

943 552-744
647 437 703

www.eulasagardotegia.com



INGURUNE NATURAL BATEAN

- Maiatza eta ekaina osoan zehar irekita.
- Ostiral, larunbat eta igande eguerditan, 13:30etatik aurrera zabalik, ENKARGUZ.